



Puntako segalariak ariko dira Zizurkilgo desafioan

ESKUALDEKOAK ▶ Ormaetxeak eta Goikoetxeak osatuko dute bikotea eta Lizaso Lapazaranekin ariko da **HITZORDUA** ▶ Urriaren 6an Melin belazean; ikuskizun «berezi» honekin bat egin du ESAITek ▶ 4

TOLOSA ▶

Mende laurdenean
Kultur Astea
Aitzolen

Udal Euskaltegiak
25 urte bete ditu ▶ 2

LIZARTZA ▶

Epaiketa Auzitegi Nazionalera eramatea onartu dute

«Terrorismoa egon daitekeela» argudiatu du epaitegiak ▶ 6

AMEZKETA ▶

Joxean Tolosa Txapelketan bihar finalak

Jaunarena kadetea eta Telletxea gaztea ariko dira ▶ 5

LEITZA ▶

Alustiza Nazioarteko Txapelketan bihar Oñatin

Txiki txakurrarekin ariko da Ardi Txakur Txapelketan ▶ 7



Gure Txokoa eta Txinparta, desafioa Oriako uretan

TOLOSA ▶ Tolosako Gure Txokoa eta Txinparta elkarteko zuzendaritzakoek apustua jokatuko dute bihar 12:00etan, Orián. Arraunean egin beharko dute eta batel bakoitzean zuzendaritza

bakoitzeko ordezkariak ariko dira. «Irabazten duenak Oriako bandera» eramango duela azaldu dute Jose Luis Garmendia eta Iñaki Olazabal lehendakariak. Ikuskizuna ziurtaturik dago. E.E. ▶ 3

L ZE
LEIZE
Tolosan
zure arropa denda
BERRIA
Korreo kalea, 19

irailaren 18tik aurrera zabalik
azoka
Euskal Herria kalea, 45 • Ibarra • ☎ 943 67 62 70

EUSKARA ▶

Mende laurdena bete du Aitzolek

Udal Euskaltegiaren 25 urteurrena dela-eta Kultur Astea egingo dute

IÑIGO TERRADILLOS

Dagoeneko 25 urte igaro dira Aitzol Udala Euskaltegia sortu zenetik, eta horregatik hasi berri den ikasturtea oso bereiztat jo dute euskaltegi arduradunek. Hala, urteurrena behar bezala ospatzeko hainbat ekitaldi osaturiko egitaraua osatu dute datorren asterako.

Alde batetik, erakusketa bat jarriko dute euskaltegi bertan, 25 urteetan bildu duten materialarekin, eta ikusgai izango da astelehenera ostira-

lera; «duela 25 urteko argazkiak eta garai hartan erabiltzen genuena egongo da ikusgai, beraz, oso berezia izango da», adierazi zuen Miren Atxaga euskaltegi irakasleak atzoko aurkezpenean. Horretaz gain, *Agian* filma, Jabier Muguruzaren kontzertua eta *Lapur zulo* antzerkia izango dira. Datorren igandean Zerkausion egingo duten bazkariarekin amaituko da Kultur Astea. «Euskaltegitik igaro diren guztiei egiten diegu deialdia bazkarirako, topaketa bat izatea nahiko genuke».



Iñaki Azaldeggi, Jokin Bildarratz, Martxeli Sagastume eta Miren Atxaga, atzo eginiko aurkezpenean. I.T.

Txartelak euskaltegi bertan eskura daitezke 20 eurotan helduentzat, eta 10 eurotan gatzetxoentzat.

4.000 ikasle inguru

Atzo egin zuten aurkezpenean Martxeli Sagastume euskaltegi zuzendariak eskerrak eman nahi izan zizkion Tolosako Udalarari; «Euskaltegia martxan jartzeko lan handia egin zuen Udalak, eta gerora ere laguntzen jarraitu du beti». Halaber, bertatik igaro diren ikasle-

ak ere eskertu nahi izan zituen, eta baita irakasleak ere. «Batez beste 400 bat ikasle izan ditugu urtero 25 urte hauetan, 4.000 ikasle inguru, beraz, eta eskertzekoa da gugan jarri duten konfidantza; bestalde, irakasleek urte hauetan eginiko lana ere ezinbestekoa izan da».

Jokin Bildarratz Tolosako gogoratu zituen, «asko borrokatu behar izan baitzen», eta egun poztekoa dela Tolosako Udala Euskaltegia egonkorturik egotea azaldu zuen.

EGITARAU ▶

Urteurrena dela-eta ekitaldi ugari izango dira urte osoan; gehienak, aste honetan.

IRAILAK 17, ASTELEHENA

19:00. Argazki, kartel eta material erakusketa irekiko dute Aitzol Udala Euskaltegiaren. Ostiralera arte egongo da zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

IRAILAK 18, ASTEARTEA

20:00. Kirmen Uriberen *Agian* filma, Kultur Etxean, doan.

IRAILAK 20, OSTEGUNA

22:30. Jabier Muguruzaren kontzertua, doan, Fronton kafetegian.

IRAILAK 21, OSTIRALA

20:00. *Lapur zulo* antzerkia, Leidorren.

IRAILAK 23, IGANDEA

14:00. Bazkaria, Zerkausion.

GIZARTEA ▶

Mugikortasunaz sentsibilizatzeke ekitaldiak, eskualdeko hainbat herritan

Tolosako Tokiko Agenda 21 eta Ernioaldea Udaltalde 21 elkarlanean, Mugikortasun Iraunkorraren Asteari ekingo diote bihartik aurrera

hilberria ▶

Miren Txapartegi Dorronsoro (Andrea)

Herenegun hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Haren senarra: Joaquin Alvarez; seme-alabak: Arantxa eta Putre Laburu, Kelmén eta Mertz Aranabal, Martin eta Ainhoa Asumendi, M^o Jose eta Txomin Carlos; bilobak: Jon, Martin, Eñaut, Maialen eta Olaia; anaia: Julen; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko SEIRETAN, Errenteriko FATIMA (Kaputxinoak) parroki elizan egingo diren hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Goiko kalea 24-3^o Ezkerria

ERRENTERIA, 2007ko irailaren 15ean

oharra ▶ gorpua Errenteriko Zentelon Tanatorioan egongo da gaur, goizeko hamarrek arte.



I. TERRADILLOS

Mugikortasunaren inguruan sentsibilizatzeke helburuarekin Tolosako Tokiko Agenda 21 eta Ernioaldea Udaltalde 21 elkarlanean egitarau oparora antolatatu dute adin guztientzat. «Herri barruan oinezkoek garrantzia gehien izatea lortu behar dugu, ondoren txirinduan doazenek, garraio publikoak gero, eta azkenik ibilgailuek», azaldu dute antolatzaileek.

Ekitaldi hauek bihar hasiko

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA ▶

EGITARAU

Bihar.

Tolosa: Pedalaren eguna, 11:00etan, Oriakok antolatuta.

Irailak 17, astelehena.

Tolosa: Mugikortasunarekin lotutako banderolak ipintzea.

Irailak 18, asteartea.

Tolosa: 19:30ean Bioetanolari buruzko hitzaldia eta energia alternatiboan ibilgailuen erakusketa udaltxean.

Asteasu: 17:00etan, bizikleten txekoak kiroledegian.

Irailak 19, asteazkena.

Villabona: Bizikleten txekoak herriko plazan.

Tolosa:

Mugikortasun mahaiaren bilera udaltxean.

Irailak 20, osteguna. Anoeta:

Bizikleten txekoak plazan.

Tolosa:

En el hoyo filma 19:15ean eta 21:45ean Leidorren, Zine Forumak antolatuta.

Irailak 21, ostirala.

Zizurkil: Bizikleten txekoak Joxe Arregi plazan.

Irailak 22, larunbata.

Villabona: Mugikortasunarekin lotutako 2. eskuko materialen azoka, Berdura plazan.

Tolosa:

Ibilgailuen okupazioari buruzko neurketa.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

Tolosaldea:

IV. Erniopeko Txirindulari Bira. Adin guztiei zuzendua. Kaskoa beharrezkoa izango da.

urteurrena ▶

II. urteurrena

Alfonsa Jauregi Maiza (ANDREA)

2005eko IRAILAREN 13an hil zen, 79 urte zituela

Polita zen zu ezagutzea erraza zu maitatzea ezinezkoa zu ahaztea

BIHAR, goizeko HAMARRETAN Bedaion Jaiokundearen parronkian, haren aldeko meza izango da. Aldez aurretik mila esker.

BEDAION, 2007ko irailaren 15ean



hilberria ▶

Bonifacio Mutiozabal Begiristain

Atzo hil zen, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Bere emaztea: Trinidad Galarraga; seme-alabak: Joxean eta Mariu, Koro eta Luis, Felix eta Ainhara, Lurdes, Xabi eta Mirari, Maite eta Fernando, Txaro; bilobak: Amaur, Zuhaitz, Ainhoa, Ibai, Lander, Ane eta Aitziber; anai-arrebak: Ramoni(+), Joxe(+), Agustin eta Tere, Pepe eta Lucia; ezkon anai-arrebak: Mari Carmen eta Lorenzo(+), Felix(+), eta Felipa, Lazaro eta Maria, Luis Mari, Carmelo eta Joxe, ilobak, lehengusu eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, larunbata arratsaldeko 17:30ean, Zarauzko Santa Maria La Real parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.iletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Araba Kalea 12-3. Esk.

oharra ▶ Hilberria Zarauzko Tanatorioan dago, 13:00ak arte.

ZARAUZ, 2007ko irailaren 15a



HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPIZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

ARRAUNA ▶

TAKen parte hartu nahi dutenentzat deia

Tolosaldeko Arraun Taldeak deialdia luzatzen diete taldean parte hartu nahi duten guztiei. Hilaren 20 eta 21an, Zerkausian da azalpen bilera. Batzarra 19:00etan izango da. Deia, klubetan antolaketan parte hartu nahi dutenentzat, nahiz arraunean egin nahi dutenentzat da.

GIZARTEA ▶

Autobus zerbitzu berezia izango da gaur gauean

Gaur, Beotibarren izango den Trikujaia dela eta, autobus zerbitzu berezia antolatu du Udalak. Alde batetik, Tolosako San Frantzisko elizaren aurretik 00:30ean, 02:00etan eta 03:30ean aterako da ikaztegiara joateko autobusa. Bestetik, Berastegira doana, 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean irtengo da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ **Taxia:** 670420
 - ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Arraunean, aurrez aurre ariko dira Gure Txokoa eta Txinparta

12:00etan Oria ibaian jokatu da bihar bi elkarten arteko desafioa, ondoren, denak batera bazkaltzera joango dira



Txinparta elkarteak arraunlariak Oria ibaian, entrenamendu saioetako batean. E. EZEIZA

JOSE LUIS GARMENDIA ETA IÑAKI OLAZABAL ▶ TXINPARTA ETA GURE TXOKOA ELKARTEETAKO LEHENDAKARIAK

«Irabazten duenak Oriako bandera eramango du, bi elkarteetako banderez osatuta dagoena»

Eguneroko bizitzan lagun handiak izan arren, bihar adiskidetasun hori alde batera utzi eta elkarren aurka lehiatuko dira Jose Luis Garmendia (Tolosa, 1967) eta Iñaki Olazabal (Tolosa, 1962).

Zertan datza apustua?
Jose Luis Garmendia: Sanjoanetan egiten den bezala erditik, aldi berean abiatuko gara biak. Bat goruntz joango da, eta bestea beheruntz. Ondoren, zia boga egin eta biak berriro abiapuntura itzuli beharko dugu. Jarraian, kalez aldatu eta beste zia boga egin beharko dugu. Hau amaitutakoan, hamar minutuko atsedena egingo dugu, eta gero, bigarren itzuli bat.

Eta, berdinketa egonez gero? Iñaki Olazabal: Sprintera jokatuko dugu finala. Biak batera, zubi berritik aterako gara eta Napar zubian amaitu.

Nondik sortu zen apustua hau egiteko ideia?

I. O.: Duela bi urte bi elkarten 75. urteurrena izan zen. Handik hasi zen festa bat antolatzea-ren ideia. Hala, sanjoanetako estropadetan bi batelak atera ztea pentsatu genuen 1934an



ESTI EZEIZA

egin zen bezala. Baina horrez gain, erromeria bat-edo egiteko ideia atera zen, baita azken hau ere, eta estropadak egitea erabaki genuen.

Zer da apustu honetan jokoa dagoena?

I. O.: Oraindik ez dugu erabaki. Mementuz ez dago ezer, afari bat-edo agian. Dena den, bandera handi bat prestatu dugu, hemen, bi elkarteetako banderak ageri direlarik. Irabazten duenak hori eramango du, Oriako bandera.
Lehenago, inoiz arraunean ibiliak al zarete?

ESTI EZEIZA

1934an Gure Txokoa eta Txinparta elkarteetako batelak atera zituzten Tolosako estropadetan. Garai horretan, Gure Txokoa izan zen irabazle, eta orain, beranduago jokatuko dute errebantxa bi taldeek.

Bi elkarten arteko desafioa ez ezik, festa ere izango da bihar goizean. Hasteko 09:30ean diana loreztatua izango da, tronpeta, txistulari eta abesbatzarekin. 10:30ean, elkarteetara joango dira, gosari on batekin indarrak hartzeko. Jarraian, arraunlariak Oria ibairuntz abiatuko dira. Hona iristean, 12:00ak aldera hain zuzen, angelusa errezatuko dute eta estropadari hasiera emango diote.

Batel bakoitza elkarteetako zuzendaritzako kideek osatuko dute. Lau lagun eta patroia joango dira bakoitzean. Txinpartakoa Pablo Seguroa, Aitor Ariznabarreta, J. Juan Artola, Jose Luis Garmendia eta Jon Ormazabal; Gure Txokoa berriz, Iñaki Olazabal, Aitor Lizarza, Jon Ubidetxe, Mikel Zelaia eta Antxon Txapartegik.

aritzen zen norbait bazegoela baina inork abantailarik izan ez zezan erabaki genuen, zuzendaritzakoak izatea lehiatu behar zutenak.

Nork irabaziko du?

I. O.: Txinpartakoak gu baino lehenago hasi ziren entrenatzen, eta abantaila dute.

J. J. G.: Bai, baina beraiek gazteagoak dira. Pisuan ere, guk 30 kilo gehiago ditugu.

Erraza egin al zaizue arraunean ikastea?

I. O.: Arraunean egitea nahiko erreza da, zaila da denak batera egitea. ◀

ERROMERIA LEGAZPIN!
Irailaren 15an, igandea, Lakiolan, 12:00etatik aurrera.
Koadrilen arteko apustu larra, bertsoariak, jokoa eta erromeria bikaina Elustondo anai-arrebeekin!
Autobusa, bazkaria eta taberna.
Euskarazko Zing! Zango webguneraren alde.
Anima zaitetz!
Euria eginez gero, Urbeltz pilotalekuan egingo da.

Beti alai jatetxea
Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia
© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

ZIZURKIL ▶ KIROLAK

Sega desafio berezia, eskualdeko hiru segalari tartean

Juan Joxe Lizasok eta Jon Lapazaranez osatutako bikoteak aurrean izango ditu Jexux Ormaetxea eta Andoni Goikoetxea



Aurkezpenean lau segalariak, Eider Elduaizen Info7ko esataria eta Itziar Arratibel ESAITeko lehendakaria.e.e.

ERREDAKZIOA

Puntako lau segalariak desafioa jokatu dute Zizurkilen, San Melin belazean, urriaren 6an, 17:00etan. Horietatik hiru eskualdekoak dira: Jexux Ormaetxea Urki orendaindarra, Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Juan Joxe Lizaso asteasuarra. Lehenengo biek bikotea osatu dute, Lizasok berriz Jon Lapazaran markinarrarekin osatu du bikotea, hasiera batean Erasunekin jokatu behar bazuen ere. Atzoko prentsaurrekoan lau segalariak izan ziren, aurkezleri lanetan aritu zen Eider Elduaizen eta ESAITeko lehendakari Itziar Arratibelarekin batera. Desafioa Tolosaldeko herritar talde batek antolatu du.

Antolatzaileen esanetan, «Tolosaldean gaur egun herri

kirol munduak duen garrantzia eta bereziki sega munduak duen jarraipena» eskualdea baserri munduari lotuta dagoenaren ondorio izan daiteke. «28 herri txikien artean osaturiko eskualdea dugu, non nekazaritzak berebiziko garrantzia izan duen betidanik».

Tolosaldean «punta-puntako segalariak aspaldidanik sortu izan direla» azaldu dute eta gaur egun ere Euskal Herriko Sega Txapelketako finalean eskualdeko 3 segalari aritu direla nabarmendu. Hain justu hauek bira luza zaie erronkan parte hartzea. Euskal Herriko Txapelketan bigarren eta hirugarren postuak lortu dituzten Ormaetxeak eta Goikoetxeak. Esan bezala, biek osatutako bikoteak aurrean Euskal Herriko txapela lortu berri duen Lapazaran eta Lizaso izango dituzte.

Desafio honek bere berezitasuna izango du. «Askotan ikusi ditugu sega desafioak baina bikotea eta txanda librean eginiko saioak ikusteko ez dugu aukera asko izaten, izan ere gehiegi jorratu gabeko modalitate da». Bestetik, lau segalarien maila nabarmendu zuten: Euskal Herriko Sega Txapelketan lehen hiru postuak lortu dituzten segalariak Horiekin batera Lizaso, «aspaldian goi mailako sega mundutik aparte egon arren bere garaian segalari bikaina izana».

Hala, «ikusizun berezi eta aldi berean ikusgarria» antolatzeari zain jarri zuten. Ordubeteko saioa egingo dute segalari bikote bakoitzak txanda librean eta kilo gehien moztzen duen bikotea izango da garailea. ESAITek bat egiten du antolatu duten ekitaldi horrekin.

IRURA ▶

Eliza eraberritua zabalduko dute biharko mezan

Konponketa lanen ostean, Irurako eliza eraberritua zabalduko dute azkenek bihar, 11:30ean, bertan egingo duten elizkizunarekin. Meza honetan herritarrei egin diren lan guztien aurkezpena egingo diete. Hilaren 29an, San Miguel Egunez hain zuzen ere, inaugurazio ekitaldi ofiziala egingo dute.

IRURA

Interneteko banda zabalari buruzko bilera

Udalak ohar batean azaldu du udalerrian laster izango dutela banda zabaleko internet, wimax teknologiaren bidez. Zerbitzu horrek banda zabala eta telefonía emango ditu eta Euskaltelek komertzializatuko du. Euskaltelek informazio bilera bat egingo du asteartean, 19:30ean, Ikastolaren areto nagusian.

ANOETA ▶ IKASTAROKAK

Izena emateko aukera kiroldegiko ikastaroetan

ERREDAKZIOA

Anoetako kiroldegian ikasturte honetarako hainbat ikastaro egiteko aukera izango da: mantenu gimnastika, aerobik, pilates, GAP, hirugarren adineko gimnastika, salsa, yoga eta cycling. 16 urte beherakoentzat, gimnasia erritmikoa, judo, jarduera anitzak eta cycling antolatu dute. Ikastaroe-

tan izena emateko epea hilaren 21an amaituko da.

Bestalde, ondorengo ikastaroak emateko kirol monitoreak kontratatu nahi dituzte: 3. adineko gimnasia, aerobik, cycling, GAP, mantenu gimnasia, pilates, salsa, yoga eta haurrentzako judoa, gimnasia erritmikoa eta jarduera anitzak. Izen-emate epea hilaren 19an amaitzen da.

VILLABONA ▶ ERREBOTEA

Enrique Abril Txapelketa bihar hasiko da plazan

ERREDAKZIOA

Bihar hasiko da Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatutako XLIV Enrique Abril Txapelketa. Txapelketa hau erreboteko espezialitatean jokatu da, nagusien kategorian. Villabonako Behar-Zana taldeaz gain, Euskal Herriko beste bost talde izango dira aurrez aurre denboraldi ho-

netako lehian. Gipuzkoako hiru: Oiarpe (Oartzun), Zubietako 1 eta Zubietako 2 (Zubietako); eta Lapurdiko bi: Kapito Harri (Uztaritze) eta Luzaz Gazte (Donibane Lohizune).

Txapelketa bi fasetan banatuko dute: lehendabizikoan itzuli bateko ligaxka jokatu dute taldeek, multzo bakarrean jarrita. Ligaxka honetan lehen postuan sailkatutako taldea finalera pasatuko da zuzenean, eta aurkaria bigarren eta hirugarren sailkatuek jokatu dute finalerdia irabazle izango da. Bi kanporaketak partida bakar batera jokatu dute.

Villabona, Oartzun eta Zubietako plazetan izango dira partidak. Igande honetan dira lehendabizikoak. Villabonako Errebote plazan, 11:00etan, Behar Zanak eta Kapito Harri jokatu dute. Finalerdia, urriaren 21ean, Oartzunen jokatu da; eta finala, urriaren 28an, Villabonan.

Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kiroldgia
Tolosa Tel.: 943 577573
www.bidebide.es

Bai Euskarari Ziurtagiria

kalitate
elkarlana
lehiakortasuna
balio erantsia
erantzukizun soziala

hitza

AMEZKETA ▶ PILOTA

Jaunarena kadetea eta Telletxea gaztea dira final handian

Joxean Tolosa Txapelketan Jauregiren eta Epeldereren aurka lehiatu beharko dira, aurtengo txapela bi mailetan lortzeko



Joxean Tolosa Txapelketa udan zehar jokatzeko dute. ASIER IMAZ

NEREA URBIZU

XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalak bihar izango dira Amezketako pilotalekuan. Joan den urtean eskualdeko bat finalean bazen, aurten bi dira. Kadeteen mailan Jaunarena (Leitzakoa) eta Albizturko Telletxea, aldiz, gazteetan.

17:00etan izango dira Larrunarri frontoian. Urtero bezala, bertan izango da Joxean Tolosa pilotari handia, eta berak egingo du leon-kastilloa, hau da, sakea nork egingo duen erabaki, txaparen bitartez. Tolosaz gain, Federazioko jendea ere bilduko da.

Hiru finalak «parekatuak»

Beraz, bihar izango diren norgehiagokak hiru dira: Jaunarena leitzarrak Jauregiren (Añorga) aurka neurtu beharko ditu indarrak. Gazteen artekoan Telletxea albizturterra Epeldereren (Azkoitia) kontra ariko da. Azkenik, bi pilotari nagusiak Añorgako Jauregi eta Iruritako Arrastoa ariko dira. Añorgakok aurten ederki asko erakutsi dute haien maila ona, finalean bi baitaude.

Hortaz, bi nafar ariko dira finalean: «Nafarrak eskuz banaka jokatzeko normalean onak izaten dira, gipuzkoarrak baino

FINALAK ▶

Txapelketa. XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa.
Modalitatea. Eskuz banaka.
Frontoia. Larrunarri.
Herria. Amezketeta.
Ordua. 17:00etan.
Norgehiagokak. Hiru mailakoak: Jaunarena-Jauregi kadeteak; Epelde-Telletxea gazteak; Jauregi-Arrastoa nagusiak.

hobeak», esan izan dute beti Tolosaldeko eta Leitzaldeko pilotako adituek. Dena dela, «finalak nahiko parekatuak izango dira, baina Jaunarena, adibidez, faboritua da. Jubenilena parekatuena da».

Larrunarri frontoian jokatuiko dira hiru finalak, eta «giro oso ona» espero dute antolatzaleek: pilotazaleentzako aukera aproposa da, zalantzarik gabe, Amezketara joateko, dagoeneko 19 aldiz aurrera eramán duten txapelketa handi hau ikustera, hain zuzen.

AMEZKETA ▶

Kultur Astea antolatzeko bilera etzi izango da

Amezketako Kultur Astea burutzeko eta antolatzeko bilerrarako deialdia luzatu du Udalak. Etzi izango da balioanitzeko gelan 20:30ean. Azaroan egiteko asmoa dute Kultur Astea eta bilera irekia izango da. «Proposamenak, kezak, ideiak eta gogoak ezagutu nahi» ditu Udalak, Kultur Aste aberatsago bat egiteko, eta denon gusturako izan daitezen.

ALEGIA ▶

Dantza Taldean izena emateko epea zabalik

Alegiko Dantza Taldekoak ikasturte berria hastera doaz eta deialdi bat luzatu dute 6 urtetik gorako hurrek izena eman dezaten. Horretarako aukera Kultur Etxean izango dute. Izen-emate epea hilaren 21era artekoa da eta klaseen hasiera, berriz, urriaren 3an. Hala ere, jendearekin hilaren 26an 19:00etan Kultur Etxean bilera egingo dute ordua zehazteko.

ALEGIA ▶ JAIK



Haur gehiegi Kalebeheran...

N. Urbizu ▶ Haur gehiegi zegoen Alegiko Kalebeherako auzoan, zeuden buruhandi kopuruari erreparatu gero. Hiru buruhandiek ezin izan zituzten haur guztiak jo, baina txikiak alde batetik bestera korrika egiten zuten hala ere, edozein txokotatik aterako zirelakoan. Ondoren, patata tortilla lehiaketa egin zuten. N. URBIZU

Aurreztu %50a finta eta laserrezko kartutxoak birziklatuz, mota guztiakotako fotokopiadora, faxa eta inpresorentzako. Ekarri zure kartutxo hutsa eta guk birziklatuko dizugu.

GAR-BI
BIRZIKLATZEKO SISTEMAK

Kondeko aldapa 1b
20400 TOLOSA
GIPUZKOA
943 67 55 68

1982-2007/ Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurren bazara / zatoz zu ere / irailaren 23ko BAZKARIRA / 2007/ Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurren / ikazte zuzen / ZKARIRA / 943651 Aitzol Udal Euskaltegia / 25. urteurren / ikazte zuzen / ZKARIRA / 943651006 / Udal Euskaltegia / 25. urteurren / ikazte zuzen / ZKARIRA / 943651006 / 1982-2007



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

hitza
argazki
lehiaketa

bidali oportetako argazkiak!

urteurren Aitzol Udal Euskaltegia

GURE IKASLE IZAN BAZARA, ETORRI IRAILAREN 23ko BAZKARIRA ! ZUREKIN IBILITAKO JENDEA ERE ANIMATU!

943651006

IBARRA ▶ KIROLA



Belabietan Ibarren areto futbol partidak ikusteko aukera izango da aurten ere. MADDI SOROA

Lauburu KE Ibarrek gaur ekingo dio denboraldi berriari

Taldearen bizkar hezurra bera izango den arren, lau aurpegi berri aurkeztuko ditu Ibarrek lehen partidari

ASIER IMAZ

Gaur ekingo dio 2007-08 denboraldia Lauburu KE Ibarren areto futbol taldeak, etxean jokatu duen partidarekin.

Denboraldi berri honetarako, berrikuntza ugari aurkeztu dituzte taldeko arduradunek. Sinoe Sanz izan da jokalarien artean, Ibarrek taldea utzi duen bakarra, Transportes Lakunzan jokatu du aurten, Villabonako Hautsi Izagirrekin batera. Ekipo teknikoan berriz, Juan Mari Irustak aurten ez du jarraituko. Berrikuntzen arlo-

an, fitxaketak azpimarratu behar dira. Guztira lau aurpegi berri izango ditu Ibarren taldeak aurtengo denboraldian: Ruben Echart eta Fermin Orrio Nafarroako Uiltzama taldetik iritsi dira. Tolosa CF taldetik ere gazte bat fitxatu dute. Azken berrikuntza, Kristian Davila ibartar gaztearena da, bi urte kanpoan egon ondoren, Irurtzungo (Nafarroa) Xota taldean eta Mallorkako (Herrialde Katalanak) Inca taldean jokatu ondoren, etxera itzuli baita.

«Aurrendenboraldi ona»

Entrenatzaile postuan, Juan Manuel Zubelzu, Txubel ibartarrak jarraituko du, Jose Manuel

Tobias eta Jose Antonio Fernandez delegatuen laguntzarekin.

Ibarren taldeak aurrendenboraldiari abuztuaren 6an ekin zion. Taldeko kide den Joxe Manuel Tobiasen esanetan, «oso gogorra baina ona izan da. Jokalariak denboraldi hasieran fisikoki %100an egotea zen helburua, eta Txubelek lan bikaina egin du helburu hori bete dadin».

Azkenik, taldeko kideek jarraitzaile eta ibartarrei deialdia luzatu die, «jokalaria gazte hauek babestera ager daitezela eskatzen diegu. Denboraldiko abonauk berriz, Belabietan jokatzaren lehen partidetan berrituko dira».

iragarki laburrak ▶

ESKUALDAKETA

Loradenda. Lasarten loradenda eskualdaketa jubilatzairengatik. Laneko materialarekin. Errenta zaharra. Toki ezinhobean. 18.000 euro. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakietako batetara: 943 36 75 75/626 50 56 89.

LANA

Irakaslea. Pilates irakaslea behar dute Lizartzan. Interesatuak bidali zuten C.V. ongizatea.lizartza@udal.gipuzkoa.net helbidera edo deitu 943 67 07 00 zenbakira. Epea irailaren 21ean amaituko da.

IBARRA ▶ GIZARTEA



Rakel Estibariz ibartarrak irabazi du jaietako txekorra

A. Imaz ▶ Ibarrenko sanbartolomeetan, urtero txekorraren zozketa antolatzen dute. Jaiak dirauten bitartean, bolondresak txartelak saltzen egoten dira herriko plazan edo ekitaldi ezberdinetan. Aurtengoan ere ohiturari eutsiz, txekorraren zozketa burutu zen. 8.044 izan da zorbaki saritua eta Ibarrenko Rakel Estibarizek zuezen zorbaki hori, txekorra berarentzat suertatu da. A. IMAZ

LIZARTZA ▶

Auzitegi Nazionalen epaiketa

Regina Otaola PPko alkatea Lizartzako (Gipuzkoa) bizilagun baten aurka mehatxuegatik aurkeztutako salaketa Espainiako Auzitegi Nazionalera eramatea onartu du Tolosako Epaitegiak. Askatasunak eman du albiste horren berri, eta «terrorismoa egon daitekeela» argudiatu bide du epaitegiak erabaki hori hartzeko. Fiskalak eta akusazio partikularrak eskatu onartu du beraz epaileak.

BERASTEGI ▶

Yoga eta eskulan ikastaroak Gaztainondon

Gaztaiñondo Jubilatuta Elkarrekin Yoga eta eskulan ikastaroak eta ekintzak antolatuta ditu. Izena eman nahi duenak lehen bailehen eman beharko ditu bere datuak Berastegiko elkartearen.

BELAUNTZA ▶

Kirol festa jatetxeak antolatuta

Bihar 12:00etatik aurrera, Belauntzan kirol festa egingo dute. Herriko jatetxeak antolatuta dituen proben artean, zaldi eta idien arteko erronka aurkitzen da. Horretaz gain, aizkolariak eta bertso bazkaria ere antolatuta dute, mus txapelketarekin amaitzeko. Bazkaltzeko erreserba egiteko edo mus txapelketan izena emateko, 943 67 09 28 telefono zenbakira deitu beharko da.

VILLABONA ▶

Loatzo Musika Eskolako klaseak urriaren 1ean

Villabonako Loatzo Musika Eskolan berrikuntza lanak egiten ari direla eta, klaseak urriaren 1era arte atzeratu direla jakinarazi dute Loatzo Musika Eskolako arduradunek.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu Bizkaita kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean), 44.500.000.
Salgai (Tolosa). Pisu "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Pisu Araba etorbidean, Salgai.
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren, Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian, Salgai (Ibarra). Lokala Euskal Herria kalean.
Alokatzeko (Salou).
Apartamentua, 2 logeta, 7 ohe, aire egokitu eta piszina, Hondartzaren ondoan.
Alokatzeko (Tolosa).
Pisu San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak, Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Frantziskon ibia.
Alokatzeko.
Pabiloi industriala, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

LEITZA ▶

Jaunarena asteburuan 2 finaletan

Jon Jaunarena Leitzako pilotari gazteak asteburu honetan bi final jokatu ditu, bata Altsasun eta bestea Amezketan. Gaur Altsasun jokatu du 10:30ean eta bere aurkaria Etxarri-Aranazko Jon Ansotegi pilotaria izanen da. Bihar, aldiz, Joxean Tolosa Txapelketako finalean ariko da, Amezketan, Añorgako Jauregi pilotariaren aurka. Norgehiagoka 17:00etan izanen da. Leitzako Txapelketako finalurrekoak, beraz, berak ere datorren asteburuan jokatu ditu. Jon Jaunarenak azaldu duenez, «bi partidetak aurkariak gogorak dira, baina behin final batetara iritsiz gero horrela izan ohi da».

LEITZA ▶

Mikel Nievek denboraldia amaitzear

Mikel Nieve txirindulariari denboraldia amaitzeko bi lasterketa besterik ez zaizkio gelditzen: gaur Altsasukoa eta ostegunean Uhartea-Iruñakoa. Joan den asteburuan Goierriko Itzulia bigarren gelditu ondoren, azkeneko bi hauek «presiorik gabe» egiten dituela adierazi du leitzarrak. Ondoren, pare bat astez atseden hartuko duela azaldu du Nievek, eta jarrera hurrengo denboraldirako lanean hasiko dela.

LEITZA ▶

Aurrerak bigarren norgehiagoka jokatu du bihar

Aurrerak denboraldi honetako bigarren norgehiagoka jokatu du bihar Amaya taldearen aurka. Aurreko igandean denboraldiko lehenengo partidak jokatu zituzten lurraldekako goren mailan, leitzarrek ordea ez zuten zortirik izan eta ez zuten puntuirik lortu, 1-0 galdu baitzuten Lagunak taldearen aurka. Leitzarrentzat denboraldi gogorra izanen dela begibistakoa da, baina gogor ari dira lanean.

LEITZA ▶



Tren geltokitik abiatuko dira Mikel Andueza eta Iraitz Uriarte. N. GARZIA

Antenara joan-etorria azkarrago nork

Herriko koadrila bereko bi mutilek apustua egin dute, Antenara joan-etorria zeinek denbora gutxienean egiten duen. Apustua ez da, ordea, hain sinplea. Iraitz Uriarte eta Mikel Andueza dira lehiatuko direnak eta Uriartek oinez egiten du eta Anduezak txirindulaz. Gainera Uriartek Anduezari 7 minutuko alde eman dio. Tren geltoki zaharretik hasi, Baztarlako telebistaren antenara igo eta berriro bueltatzea, hori izanen da bi mutilek gaur arratsaldean egin beharko duten proba. 18:00etan aterako dira.

ARESO ▶ GIZARTEA



Antonio Alustizarekin batera beste 11 edo 12 artzain lehiatuko dira, antolatzaileen arabera. N. GARZIA

Alustiza Nazioarteko Txapelketan, bihar

Txiki txakurrarekin parte hartuko du eta Euskal Herriko eta kanpoko 12 artzai eta txakurren aurka lehiatuko da, Oñatin

NAIARA GARZIA

Bihar Antonio Alustizak Nazioarteko Ardi Txakur Txapelketan parte hartuko du bere txakur Txikirekin. Orotara, Joxe Maria Bengoa antolatzaileak azaldu duenez, «12 edo 13 artzain lehiatuko dira Oñatiko Santa Luzia zelaiean». Zenbait artzain oraindik zehaztu gabe daude. «Igandean Euskadiko Txapelketa da eta hangoa oraindik ez dakigu zein den ezta Aramizkoa ere. Horregatik 4 bat artzain oraindik zehaztu gabe daude».

Hauek izango dira Antonio Alustiza aresoarrarekin batera, bihar Oñatin lehiatuko diren beste partaideak: Joxe Mari Jauregi, iazko txapelduna Asparrena, Araba) Bizkor txakurrarekin, Jesus Mari Plazaola (Arrasate, Gipuzkoa) Linda txakurrarekin, Kepa Ardanza (Abadiño, Bizkaia) Izarrekin, Migel Alonso (Areta-Llodio, Araba) Urki txakurrarekin. Iparaldekoak, berriz, aurten senar-emazteak dira: Jean Atxeritogarai eta Michelle Atxeritogarai (Behe-Nafarroa). Katalunia (Herrialde Katalanak) eta Castellotik (Herrialde Katalanak) ere zenbait artzai etorriko dira: Jose Mari Pleguezuelos, Nuca txakurrarekin (Tarragona); Kataluniako bigarren partaide oraindik ziurtatu gabe dago. «Kataluniatik beti bi etortzen dira, baina bigarrenak txakurra gaixorik dauka eta ez

dakigu etorriko den edo ez», dio Bengoak. Castelloko artzaina ere oraindik ziurtatu gabe dago, baina antolatzaileek Julio Vayoteren izena aipatu dute, eta Espurna txakurrarena.

Joxe Mari Bengoak adierazi duenez, «alde zuretik zeinek irabaziko duen jakitea oso zaila da. Zorteak zerikusirik izaten du, baina baita txakurren eta artzainen nerbioek ere».

51. edizioa

Ardi txakur txapelketa Oñatirekin erabat lotuta dago. Euskal Herriko 1955. urtean bertan hasi zen eta 1956. urtean nazioartekoa antolatu zuten. Orduko urtero bertan egiten dute. «Herriari izena Arantzazuk ematen dio, baina baita txapelketa honek ere». Orain, ordea, lehen bezainbeste jende ez dela biltzen azaldu du

Bengoak. «Lehen 6.000 pertsona inguru biltzen ginen, baina orain hainbat lekutan egiten denez... Aurten, esaterako, egun berean bi gauza daude, txapelketa eta Zegama-Aizkorri igoera, eta gero Amurrioren ere gurekin batera Artzain Eguna egiten dute».

Bengoaren iritziz publikoa aldatu egin da. «Publikoa jaitxi egin da. Orain gazte mailan jendea txakurrekin sentsibilizatuago dago eta hauek gehiago etortzen dira, lehen baserriak gehiago etortzen ziren bezala».

Sariei dagokien lehenengoak 300 euro inguru eramaten ditu; gainontzekoek, hortik behera. Sariak banatu ondoren 100 bat lagunek bazkaria egiten dute. «Parte-hartzaileak, senitartekoak, antolatzaileak, laguntzen ibiltzen direnak... denak elkartzeko gara».

BIRIGARRO ETA USOTARAKO
POSTUEN ENKANTEA
ARESON (Nafarroa)

Donostiatik 25 minututara, kotxez postuetaraino joateko aukera. Postuak eginda eta inguruak garbituta.

1. enkantea

Irailak 22 • 19:00etan

2. enkantea

Irailak 29 • 19:00etan

948 510327 • 665 63 96 74



AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alkiza. Jaien egitarauaren baitan, 18:00etan herri kirol saioa; ondoren sagardo dastaketa; 20:30ean herri afaria eta 23etan Dark Avenue, Izeba Pilarren llobak eta Nunbait taldeen kontzertua.

Anoeta. Anoetako Bai Euskal Herriari herri ekimenak, irailaren 15erako, EHNA tramitatzeko aukera berri bat eskainiko dio edozein herritarri, 11:00etatik 13:00etara bitartean udaldebako pleno aretoan. Beharrezkoak izango dira: errolda agiria, 15 euro eta 3 argazki.

Ibarra. Bizi nahi jubilatuta elkartearen 25. urtemuga: 11:30ean toka txapelketa bikote mistoekin; hamaiketako tomate eta piperrekin; 18:00etan haur jaialdia; opari banaketa eta txokolatada.

Tolosa. Euskara ikastaroak etorkinentzat hilaren 15etik aurrera hasiko dira Kultur Etxean, Ereite elkarteak antolatuta. Kultur Etxean larunbatero, 10:00etan.

Tolosa. Virgen de Guadalupe talde folklorikoaren emanaldia Triangulon ondoren flamenko ikuskizuna La Jara zentroan, Extremadurako Astearen barruan.

Tolosa. Garagardo Festa Zerkausian 18:00etatik 24:00etara. 17:00etan Pedal Eguna San Frantziskoren eta 21:00etatik 06:00etara Trikuja diskoko festa Beotibarren.

Tolosa. Aitzol euskaltegiaren 25. urtemugako bazkaria izango da Zerkausian datorren igandean. Izen-ematea, 943 651006.

ZINEMA

Tolosa. Harry Potter filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
Goizueta. Apeztebea, L. M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Horiaren harian

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Jon Pagolak eta Leire Zabalak ere parte hartu nahi izan dute argazki eder hauekin; ez galdu aukera eta bidali zurea

ASILAH (MAROKKO) ▶

Jon Pagola (Tolosa).

Argazki benetan ikusgarria bidali digu Jon Pagolak. «Marokkon aterata dago abuztuan bertatik lau lagunek furgonetaz eginiko bidaian. Marokko osotik ibili ondoren azkeneko egunak leku zoragarri honetan igaro genituen. Asilah da herria eta *koben hondartza* deitzen diote lekuari. Argazkian, iluntzean dromedarioak hondartzan paseoan», azaldu digu.



SORIA (ESPAINIA) ▶

Leire Zabala (Tolosa).

Argazki hau ere hori-hori eta ikusgarria da. Hain zuzen ere Leire Zabalak bidali digu Soriara (Tolosa) eginiko bidaia. «Udara honetan egun batzuk pasa ditugu Soria aldetik. Autotik jaitsi behar izan nuen eguzki-lore soro handi honi argazki bat ateratzeko. Dena eguzki-lorez beteta zegoen!! Zein polita!!»

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Calvo eta Amagoia (Villabona). Corella, Villabona eta Zizurkilgo koadrilaren partetik ondo pasa zuen ezkontza eguna.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...